_kirola:

AARON GARMENDIA

> “Menditik galduta ibiltzeak asko irakasten dizu”

“Galtzeari beldurra galdu behar zaio Raidetan parte hartzeko” 12.or

Kultura

Aiala Mendieta:

“Nahiago dut nik idatzitako abestiak kantatzea” 11. or.

Iritziak:

ANDONI ALDEKOA 2. or.
AGAPITO VALLE 6. or.
JONATAN MORENO 7. or.
PATXI ITURREGI 10.or
JON MUÑOZ 11. or
IRATI MARAÑON 16.or

aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2015 /// Irailak 24 ///
OSTEGUNA
37. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

ANAIA HANDIAREN BEGIRADAPEAN

AIARALDEARRAK “REALITY SHOW”-ETAN

Geraxane Ussia eta Dulce Burutxaga (El conquistador del fin del mundo)

Yogurinah Borova eta Eduardo Iturralde Gonzalez (Safari Wazungu)

Maika Anguiano (Ex ¿que harías por tus hijos?)

(...)

Kartzela zigor eskaerak zituzten Tubos Reunidoseko langileak, absolbituta

Gasteizko Epaitegiak absolbitu egin ditu Tubos Reunidosen lan hitzarmenaren aurka 2012an eginiko mobilizazioetan parte hartzeagatik epaitutako bi langileak. Kartzela zigorra eskatzen zien fiskaltzak biei: bi urtekoa bati eta bederatzi hilabetekoa besteari.

Dena dela, epaia ez da irmoa, fiskaltzak errekurritzeko epea oraindik bukatu egin ez delako.

Fabrikako langileek elkartasuna adierazi diete epaitutako bi langileei. Epaiketaren bezperan 24 orduko lanuztea egiteari ekin zioten, eta epaiketaren egunean busa antolatu zuten, epaitegiaren aurrean elkarretaratzea egiteko. 6. or.

SIRIAKO ERREFUXIATUAK: Laudio, Amurrio eta Urduña errefuxiatuei harrera egiteko prest *Bosniako gerrako esperientzia* 7 or.

aek
euskara praktikoa
eman izena euskaltegian
Laudioko AEK
• Aurrez aurreko eta autoikaskuntza euskara ikastaroak
• Ordutegi eta maila guztiak
• Titulu ofizialak. 1, 2 eta 3. maila / EGA

30 urtean, 50.000 lagunek ikasi dute euskara gure 100 euskaltegietan

Sara Cozar
Aktorea, AEK-ko ikasle ohia

Eman izena

Eskolak · Mintza praktikak · Barnetegiak · On-line
Normalizazio planak · Autoikaskuntza · Titulu homologatuak

673 200 100 · 946 464 000
www.aek.eus

_iritzia

Andoni
Aldekoa
KAZETARIA

_Leihotik

Hirien arteko lehia

Hiriek lehiatu egiten dute. Inbertsioengatik, turistengatik, merkataritza jarduerengatik, ekitaldien ospakizunagatik... baina askotan norgehiagoka eremuak nahasten ditugu, eta gure ingurukoekin lehiatzeari ekiten diogu. Eszenatoki global berria ulertu behar dugu, eta argi izan behar dugu etorkizunari aurre egiteko euskal hiriak elkarrekiko osagarriak izan behar direla, estrategia komunak izan eta mundura modu bateratu batean aurkezteko gai izan behar direla.

Hausnarketa horrek Aiararako balio behar digu. Gure herriek elkar osatzeko gai behar dute izan. Estrategia, zerbitzu eta etorkizunerako proiektu komunak artikulatzeko gai izan behar dute.

Nerbioi Goienako herri bizkaitarrekin batera, garatzeko eta eskualde bezala Euskadiko eta inguruko beste zonaldeekin lehiatzeko estrategia partekatu bat izan behar du Aiara eskualdeak. Lehiatu, enpresak eta turistak erakartzeko. Gure gazteak hemen geratu daitezen lehiatu, gaueko aisialdian, merkataritzan...

Europa mailan "hiri-agenda" bultzatzen ari dira, mugen arteko guneetan. Nerbio Goienak bere hiri agenda propioa garatu behar du, bere herriak eta baserri-eremuak bultzatzeko, modu koordinatu batean bere burua kanpora aurkezteko eta gure nekazaritza-eremuko ekintza eta gaitasunak integratzeko, ezin hobeak diren gure baliabide naturalekin batera. Etorkizunean pentsatzeko garaia da, eskualde mailan partekatua izango den etorkizunean. Aiara-Nerbioi Goiena moduan lehiatzeko unea da.

Mertxe
Gurasoa

Lateorro Ikastetxean dugun abantaila liburu mailegu sistema bat dagoela da. Horregatik, eskolarako materiala erosi behar dugu soilik. Hala ere, beste gurasoei entzuna diet liburuen edizioak aldatzen direnez, askotan seme-alaba nagusien materialak ez duela txikiarentzako balio.

Irantxu
Liburu saltzailea

Testu liburuak koste gehigarri bat dira. Gainera, oporretatik itzuli bezain pronto ematen da. Kostea ez da esaten den bezain handia, baina altua da.

Bigarren hezkuntzan 180 euro ingurukoa da kostua. Unibertsitatean egoera asko aldatzen da. Matrikulak izugarri ari dira garestitzen.

_GALDERA

Gogorra al da ekonomikoki ikasturte hasiera?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.

Mireia
Unibertsitateko ikaslea

Unibertsitateko matrikulak pixka bat garestiak dira nire ustez; eta nire gradua zientzietakoa denez, are garestiagoa da. Mila euro baino gehiago dira, eta hori ordaintzeko... Ea bekarik ematen diguten! Zientzia liburuak ere garestiak dira. Iaz liburu bat erosi behar izan nuen eta 90 euro ordaindu nituen.

Jon
Gurasoa

Kontuan eduki beharreko gastu bat da. Zaila da. Jendeak "abenduko aldapaz" hitz egiten du, baina nik uste dut irailekoa gogorragoa dela. Aldapa geroz eta handiagoa da gainera, dena ari delako garestitzen soldatak berdin mantentzen diren bitartean. Laguntzak daudela imajinatzen dut, eta egon behar dira.

Maria
Unibertsitateko ikaslea

Unibertsitaterainoko garraioa garestia da. Donostiara ikastera joateak 200 euro inguruko kostua dakar hilean. Arabako Aldundiak beka bat ematen du, baina ez da hilabete bat osorik ordaintzera ere iristen. Ikaskideekin askotan komentatu dugu unibertsitate publikoan gaudenez dena dohainik izan beharko litzatekeela.

_gutunak

Hutsuneak betetzen

Ander Mendieta eta Arantxa Guridi (Hutsuneak Betetzen)

Hutsuneak Betetzen Amurrion uztailean sortutako kolektibo bat da. Gure helburu nagusia asanblada ireki bat sortzea da, zeinetan edozein pertsonak ekintza, hitzaldi, kontzertu edota mobilizazio proposamenak egin ahalko dituen, bere genero, jatorri, adin edo ideiak direnak direla. Funtsean, jendarte borrokarako kolektibo herrikoi bat sortzea da asmoa, inongo alderdi edo ideiarekiko loturarik gabekoa. Ez dugu borroka bakar batean inplikatu nahi, gugan eragina duten borroka guztietan baizik, edo horretan ahalegindu nahi dugu behintzat. Etxegabetzeak, langileak, langabetuak, animalien eskubideak, feminismoa eta abar.

Abuztuaren 15ean Amurrion eginiko zezenketen aurkako elkarretaratzea babestu genuen. Amurrioko Udalak zezenketei eskaintzen dien aurrekontua atera genuen argitara. Orain hainbat ekintza ditugu buruan. Horietako bat urriaren 16an Laudioko Gaztetxean kontzertu batzuk antolatzea da, proiektua finantzatzeari begira. Norbaitek asanbladetara gerturatzeko interesa badu, dudarik edo proposamenik botatzekoa edo gure ekintzen berri jasotzekoa gurekin harremanetan jarri daiteke. **E-maila:** colectivollenandovacios@gmail.com. / **Twitter:** @ColectivoLV / **Facebook:** Llenando Vacios Colectivos

Zapatakada internazionalista

Txetxu Aldaiturriaga Egia (Askapena Aiaraldea)

Herri Epaiketa egin zen igandean (irailak 20) Laudion. Akusatua ez zen edonolakoa: Espainiar Estatua zen. Banan-banan igo ziren Gazte Mugimenduko, Etxerat elkarteko, Saharar komunitateko eta langile mugimenduko ordezkariak Herriko Plazan muntatutako oholtzara, lekuko gisa deklaratzera. Testifikazioak bukatuta, epaia bota zuen epaileak: Estatu Espainiarra herrien zapalkuntza eta inperialismoaren delituen errudun zela ebatzi zuen. Zigorra: "zapatakada internazionalista". Herritarrek exekutatu zuten kondena, ekitaldian banatu ziren laranjaz margotutako zapatilekin.

Askapena, Askapeña konpartsa eta Herriak Libre eta Elkartruke elkarteen aurka urrian Entzutegi Nazionalean egingo den epaiketa salatzea izan zen ekimen sinboliko horren xedea. Aipatutako kolektiboak legez kanpo uztea eta Askapenako bost militanteri kartzela zigorra ezartzea eskatzen du fiskalak. Baina igandean Aiaraldeko herritarrek ozen aldarrikatu zuten Estatu Espainiarrak ez duela inor epaitzeko zilegitasunik. Aiaraldean soilik ez, Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere antzeko Herri Epaiketak egin dira. Herri Sententzia, aldiz, datorren urriaren 12an izango da, Iruñan. Animatu bertaratzera! Internazionalismoa ez da delitua!

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Laudio

Antzinako ohitura jarraituz hautatzen da alkatea./aiaraldea.eus

X. Euskal Jaiak bi eguneko egitarau oparoa eskainiko du gune ezberdinetan

ERREDAKZIOA I

Irailaren 25ean eta 26an ospatuko dute Laudioko Euskal Jaia. Aurtengoa 10. edizioa izango da eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, euskaraz bizitzeko konpromisoa eta nahia zabaltzea da haien asmoa. "Euskaraz bizitzeko deia egin nahi dugu, baina ez dadila egun bakarreko mezuan gelditu eta urteko egun guztietarako aldarria izan dadila", adierazi du Basalarrina elkarteak.

Ospakizunak irailaren 25ean abiatuko dituzte. Beste ekimen batzuen artean, Euskal Jaiak babesa emango dio udal euskara zerbitzuak sustatutako Merkataritza Planari. Egitasmoak bezero euskaldunen konpromisoa bilatuko du Herriko Plazan 18:00etatik aurrera, mosaiko bat egiteko argazkiak ateraz.

Bazkaltzeko 4 gune

Larunbatean, berriz, egun osoko egitaraua ekarriko du Laudioko kaleetara Euskal Jaiak. Goizean hainbat ekintza egingo dira eta 14:30ean herri bazkariaren txanda helduko da, 4 gunetan, Laudioko aintzinako auzoak omenduz (Goienuri, Olarte, Larrazabal eta Larrea). Gune bakoitzak menua eskaini ez ezik, ikuskizuna ere antolatuko du bazkalostea dibertigarria izan dadin.

Goienurin (Café Araba) perkusio ikastaroa egongo da. Olarten (Sorgin, La Meca, Keska, Iratxo, Capucci) bertso saioa izango dute Oihana Bartra eta Eneko Abasolo bertsolarien eskutik. Larrazabalen (Iluntze eta Arrañope) Kantaldia gauzatuko dute Duodeno taldearekin Larrean ere (Indriska, Azoka, Haitzulo Barri Biribil, Alboka) musikak izango du protagonismoa, Euskaraokearekin euskal kanta famatuak oholtzaratuaz. 19:00etan alkatearen hautaketa egingo dute Herriko Plazan. Aurten euskaraz ikasi duen edo ikasten ari den etorri berria izango da alkatea, egindako ahalegina aitortzeko.

BI EGUN, jai bakarra

IRAILAK 25

17:30 // **Umeentzako jolasak eta bokata tailerra**, Herriko plazan

18:00 // Bezero euskaldunak behar ditugu! **photocall-a**, Herriko plazan

19:00 // **Dantza Plaza**, Herriko plazan

IRAILAK 26

10:00 // **Laudioko ekoizleen azoka**, Pio XIIn

12:00 // **Diana eta kalejira** Ttunturro joaldun taldearekin

12:00 // **Sagardo eta gazta dastaketa**, Herriko Plazan, jarraian kantu-kalejira

14:30// **HERRI BAZKARIA**
Goienurin: Umeentzat makarroiak eta oilaskoa eta helduentzat entsaladilla errusiarra eta oilaskoa (Glutenik gabeko menua ere eskainiko dute)
Olarte: Babarrunak
Larrea: Paella eta dalkia
Larrazabal: Berakatz sopa, espagetiak bolognar erara, solomoa eta piperrak

Bazkaldu ondoren:
Goienuri: Perkusio ikastaroa
Olarte: Bertso saioa (Oihana Bartra eta Eneko Abasolo)
Larrazabal: Kantaldia Duodeno taldearekin
Larrea: Euskaraokea

19:00 // **Alkatearen hautaketa**, Herriko Plazan; jarraian Dantza Plaza Oskizola taldearekin, ondoren Kantu kalejira

22:00 // Musika emanaldia: **Patx&Run**

Espainiako bandera ez jartzeagatik Natxo Urkixo zigortu dute

ERREDAKZIOA I

Daniel Sancho Jaraiz administrazioarekiko auzietarako 3. gelako epaileak Natxo Urkixo Laudioko alkatea zigortu du espainiar ikurra udaletxean ez jartzeagatik. Hilero 1500 euro ordaindu beharko ditu alkateak-berak, ez udalak-ikurra jarri arte. Ikurra jarri ezean gaitasungabetzea jaso dezake Natxo Urkixok.

"Inposizio antidemokratikoa"

Natxo Urkixo Laudioko alkateak epaia inposizio lotsagarri eta antidemokratitzotat jo du, "erabaki judizial-politikotzat".

Horren harira, gogoratu du Laudioarren gehiengoak ez duela bere egiten espainiar ikurra, eta espainiar estatuak aukeratutako bidea inposizioa dela.

Gainera, balkoian ikurra jarri beharra erabaki politikoa dela ziurtatu du Urkixok, legeak ez baitu zehazten non jarri behar den.

Horretaz gain, alkateak gaineratu du epaia gezurretan oinarrituta dagoela: "Txostenak esaten du udaletxeko goiko partean jarritako ikurra ez dela plazatik ikusten eta balkoian, ordea, bai. Egia esanda, eraikineko goiko partetik gehiago ikusten da."

Natxo Urkixok azaldu du abokatuak aztertuko dituela dauden bideak, eta beste konponbiderik egongo ez balitz, espainiar ikurra jarriko dutela.

Espainiar ikurra ez jartzeagatik zigortutako lehenengo alkatea da Natxo Urkixo.

Irisgarritasun baldintzak hobetzea eskatuko diote ADIFi

ERREDAKZIOA I

Laudioko tren geltokian eta tren garraio zerbitzuan irisgarritasuna bermatzeko eskaera egin du herritar talde batek. Horretarako sinadura bilketa abiatu zuten, eta orain, sustatzaile horiek hirigintza batzordera gonbidatu dituzte. Promotoreek tren geltokira plataformaz igotzeko aukera ez ezik arrapala jartzea ere eskatzen dute. Horrez gain, behin geltokira iritsita trenetara igotzeko dauden oztopoak ezabatzea ere exijitu dute. Udal gobernu taldeak adierazi duenez, akordioa bilatzea dute xede. Gainera, ADIF-i interpelazioa egiteko baldintzak daudela uste dute, egin den proiektutik abiatuta tren geltokiko irisgarritasuna hobetu dezaten.

Bilerak

Hirutan bildu dira sinadura bilketa abiatu duten herritarrak eta udal gobernu taldea. Aurreneko kontaktua teknikoa izan zen. Azkenekoan, berriz, zinegotziez gain udal teknikariek ere parte hartu zuten. Horren bidez, herritarrei ahalik eta informazio gehien helaraztea lortu nahi zuten. Proiektua sortu zenetik teknikariek arrapala jartzeko aukera baloratu arren, plazaren baldintza tekniko ezagatik alboratu egin behar izan zuten. Izan ere, arrapalak plaza osoa okupatuko beharko luke eta ezkerrean kokatuz gero, arrapala oso urrun geratuko litzateke.

_herriz herri

Orozko

Zaborra kendu dute herriko lau puntutik. Aiaraldea.eus

Zabortegi ilegaletan 47,5 tona zabor jaso dituzte

ERREDAKZIOA I

Eusko Jaurlaritzak 6.800 euroko diru-laguntza eman dio Orozkoko udalari herriko zabortegi ilegalak kendu ditzan. Guztira, 47,5 tona zabor kendu dituzte, hau da, 4 kamioi inguru. Lau kokapen ezberdinetan zeuden zabortegiak; Zaballako bidean, Burrullagan, Ugaldeko bidean eta Urigoitiko errepidean, hain zuzen ere.

Antzinako zabortegiak ziren kendu dituztenak. Txikienak lehenago garbitu zituen udalak bere bitartekoak erabiliz, baina, handienak geratzen ziren eta horretarako kanpoko baliabideak behar zituen tokiko erakundeak. Batez ere, plastikoek, etxetresna elektrikoek eta botilek osatzen zituzten zabortegiak.

Josu San Pedro Orozkoko alkatearen arabera, ingurumena zaindu beharra dago. Horregatik azpimarratu du horrelakorik ez errepikatzea espero duela.

Gaztaina saltzaileen matxinada protagonista

ERREDAKZIOA I

Duela bi aste hasi ziren Gorbeiaren inguruko jardunaldiak Orozkon, eta igandean jasoko dute museoan ikusgai dagoen erakusketa.

Hori baino lehen, ordea, jardunaldiak eta erakusketa bultzatu dituen pertsonak -Iñaki García Uribek- hitzaldia eskainiko du Orozkoko museoan. Hitzordua bihar izango da, 19:30ean.

Hitzaldiak 1778an Orozkoko gaztaina saltzaileek Atxurin egindako matxinada izango du ardatz, eta gaztainak eskualdean eta Orozkon izandako garrantzia goraipatuko du hizlariak.

Izan ere, Europako gaztaina ekoizle nagusienen artean zegoen eskualdea, eta Iñaki García Uriberen arabera munduko hainbat lekutan saltzen zen.

Horren harira, García Uribek historiako atal ahaztu bat berreskuratuko du; Orozkoko saltzaileek bere eskubideak valdarrikatzeko Bilbon egindako matxinada.

Artziniega

Luiaondon eta Lantenon kexu agertu dira autobus zerbitzu berriarekin

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa

Aiarako udalerriak autobus sare berria du uztailaz geroztik, ordutegi eta geltoki berriekin. Luiaondon aurretik ezarrita zeuden autobus geltoki batzuk kendu dituzte, eta jende gehienak kotxea erabiltzen du.

Zehazki, Gasteiza joateko Malato Zuhaitzan zegoen geltokia eta Gasteiza joateko Oleta jatetxean kokatutako geltokia kendu ditu Arabako Foru Aldundiak. Hori dela-eta, bizilagunak kexak jarri dituzte. Izan ere, auzo berri horretan bizi da Luiaondoko jende gehiena eta orain geratzen den autobus geltoki bakarra eremu horretati kilometro batera dago. Ondorioz, auzoa zerbitzurik gabe geratu da.

Sare berriaren baitan Artziniegatik Okondora doan autobus-linea jarri dute, Menagarai, Arespalditza, Murga, Izoria, Amurrio eta Laudiotik pasatuz.

Zerbitzuak orain arte baino ordutegi gehiago ditu baina Lantenon zegoen geltokia desagertu egin da. Administrazio batzarreko lehendakariak -Iratxe Parrok- argitu du idatzi formala bidaliko dutela egoera salatzeko, herriko jende asko garraiorik gabe geratu baita bertan ere.

Bestalde, Gasteizera doan autobusa ez da Luiaondo ez den Aiarako herrietan geratuko, Hortaz, aiarrarrek Amurriora edota Laudiora joan beharko dira Gasteizera joateko.

Okondo

Herriko argiak aldatzen ari dira LED sistema erabili dezaten

ERREDAKZIOA I

Udalak herriko argiak aldatzeari ekin dio. LED sistemako argiteria jarriko dute, eta kontsumoa %40 aurreztea espero dute. Gainera, aldaketarekin zerbitzua hobetuko dela adierazi du Sergio Tato alkateak. Horretarako 110.000 euroko inbertsioa egin du erakundeak, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak Energiaren Euskal Erakundearen bitartez diruz laguntzea espero.

Frontoia, haur-eskola eta ikastola lotzea, Foru Planerako



ERREDAKZIOA I

Okondoko udal osoko bilkuran Arabako Foru Aldundiari aurkeztuko dizkioten proiektuak zeintzuk izango diren erabaki dituzte, Foru Planean txertatzeko. Alde batetik, frontoiaren konponketa onartu zuten Okondo Aurrera eta EAJ taldeek. Eta bestetik, EAJ eta EH Bildu alderdiek haur-eskola eta ikastola lotzeko eta inguruak konpontzeko eskatu zuten.

Artziniega

ARTZINIEGAKO ERDI AROKO AZOKA: Kanpoko eta inguruko hainbat ekoizle bertaratu ziren larunbatean Artziniega Erdi Aroz janzteko. Herriko pertsona ugari ere mozorrotu ziren. Hala, alde zaharra jendez bete zen, eta arratsaldez ere luzatu zen goizean hasitako jaia, jendetza erakarri baitzuen ospakizunak.

_herriz herri

Amurrio

XXII. Artzain Egunak ekintzaz beteko du herria igandean

Ardien ile mozketa erakustaldia egingo dute. /aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Irati Moreno

Egitarau oparoa antolatu dute irailaren 27rako Amurrion. Izan ere egun horretan, Artzain Egunaren ospatuko dute. Aurten XXII. edizioa izango da. Goizeko 10:00etan emango diote hasiera egunari Gaztaren II. Herri Lehiaketarekin. 11:30ean, ordea, egingo zaie ongietorria Artzain omenduei[1]. Agiñagako Jose ramon Martinez Elejalde, Albenizeko Carmen Perez de Albeniz eta Goiuriko Jose Meabe Egiluz izango dira omenduak aurten.

Ondoren, gazta ekoizpenaren inguruko erakustaldia[2] egongo da. Jarraian, 12:30ean ordubeteko ilea mozteko bi teknikaren erakustaldia egongo da. Eguerdiko 13:30ean izango da Arabako artzainei omenaldia. Gazta txapelketaren sari banaketa ere ordu berean egingo dute. Juan Urrutia plazan izango dira aipatutako ekintzak, baina beste kale batzuetan ere giroa sortuko dute.

San Anton Plazan, aldiz, 15:00etan herri bazkaria izango da. Txartelak jada salgai daude Amurrioko udalean eta turismo-bulegoan, 16 euroren truke. Eguna bukatzeko arratsaldeko 18:00etan artzain txakurren XVII. Lehiaketa egongo da Pikazako zelaiaren parean, udal-igerilekuen ondoan.

Hiztegi lagungarria

Omendu[1], omenaldia jasotzen duena / Erakustaldia[2], emanaldia

Josune Irabien Eudel-eko lehendakariorde izendatu dute

ERREDAKZIOA I

Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) zuzendaritza berria onartu du. Osatu duten talde berrian Josune Irabien Amurrioko alkate jeltzaleak izango ditu lehendakari ordeari dagozkion ardurak -bi dauzka erakundeak-.

Josune Irabien pozik agertu da izendapenarekin, baina lan handia izango dela azaldu du: "Legealdi honetan udal legea, etxebizitza legea eta Zerbitzu Sozialen Eskutitzari aurre egin beharko diegu eta aldaketak egongo dira derrigorrez".

Eudel-eko lehendakariorde berriak erakundeak egiten duen lana goraipatu du: "Oso lan teknikoa da eta udalerri txikiei, hau da, langile gutxi dituzten udalerriei, laguntza eta aholkularitza tekniko zerbitzu oso garrantzitsua eskaintzen dizkie Eudel-ek".

Paisaiaren ekintza plana egiteko parte hartze prozesua abiatu dute

ERREDAKZIOA I Irati Moreno

Amurrioko Udalak Amurrio Hiribilduko Paisaiaren Ekintza Plana idazteko lanekin jarraitzen du. Aztertuko den paisaiaren diagnostikoa egin da, eta datozen asteetan zehaztuko dira planean proposatuko diren kudeaketa-neurriak.

Jarduera adostuak izan daitezen eta amurriarren nahiei erantzun diezaien, ezinbestekotzat jo du udalak herritarrek prozesuan parte-hartzea. Horretarako, gaur tailer bat egingo dute udaletxean 18:30ean. Bi helburu ditu dinamikak. Batetik, paisaiaren kalitatearen helburuak berrikustea eta egiaztatzea. Eta, bestetik, identifikatutako eremu garrantzitsuenentzat kudeaketa-neurriak definitzea.

Herritarren batek gaiari buruzko zalantzarik izanez gero, Udalaren Herritarren Partaidetza Arlora jo dezake, edo partehartzea@amurrio.org helbide elektronikora mezua bidali.

Urduña

Argiteria aldatuz energia gastuen % 76 aurreztuko du udalak

ERREDAKZIOA I

Urduñako Udalak Alde Zaharreko farola guztiak aldatuko ditu. Energian eta gastuetan aurrezteko asmoz egingo du aldaketa. Argiteria berriztatzea bi fasetan egingo dute.

Guztira 945 dira aldatuko diren bonbillak eta moldaketek orain arteko gastua %76 murriztea ekarriko dute.

Argiteria publikoaren gastua urtero 85.172 eurokoa izatetik 20.446€ eurokoa izatera igaroko da eta 64.736€ aurreztuko ditu udalak. Lehendabiziko fasean Alde Zaharreko farola guztiak berrituko dituzte. 230 farola izango dira guztira..

Hiriko gainontzeko argiteriaren aldaketa diru-laguntzen arabera egingo dute .

Aiaraldea

Araban Almudena Otaola izango da Senaturako EAJko lehen hautagaia

ERREDAKZIOA I

Eusko Alderdi Jeltzaleak Kongresu eta Senaturako hautagaien behin betiko zerrendak onartu ditu.

Araba Buru Batzarrak osatutako zerrendak berretsi ditu. Almudena Otaola foru batzarkide ohia izango da lehenengo hautagaia Madrilgo senaturako Araban.

Okondoarra ez ezik, Joseba Amondo laudiarra ere aurkeztuko dute, bigarren hautagaiaren ordezkoa baita. Kongresurako zerrendari dagokionez, Aiaraldeko beste bi jeltzale egongo dira arabar zerrendetan; Jon Karla Menoyo, Laudioko alkatea izandakoa, hirugarren hautagaia izango da eta Agurtzane Llano -aurreko legegintaldian Artziniegako alkatea izandakoa- laugarrena.

_sozioekonomia

Agapito
Valle
LAB

_Argia

Eskubideen urraketei erantzun

Murrizketaz eta betetzeko zailak diren baldintzak dituen sistema izugarri pobrea areagotzearekin nahikoa ez, eta ezarritako botereek gizarte erantzuna saihestu nahi dute.

Euren erabakien kontra eta egungo lan egoera salatzeko egiten diren protestak kriminalizatu nahi dituzte, debekatzera iritsiz eta betiere salaketa eta zigorren mehatxuarekin.

Botere ekonomiko eta politikoek ez dute nahikoa euren borondatea burura eramatearekin.

Ez dute onartzen euren erabakiekiko gaitzespena, eta muturreraino eramaten dute kontzentratzeko eta manifestatzeko eskubidearen urraketa, indar errepresiboei euren kaxa jokatzeko bidea zabaltzera iristeraino.

Gainera, testigantza grafikoak biltzea ere eragozten dute, gero eskubide urraketa hori salatzeko aukerarik ez izateko.

Egoera hau ez da berria Euskal Herrian; baina orain naturaltasuna eman nahi diote euren ekintzen legezkotasuna aldarrikatuz.

Honen adibide bat da Tubos Reunidos enpresan 2012an gertatutakoa. Irailaren 10ean bi langilek epaiketa izan zuten gertakari horien harira eta azkenean absolbituak izan dira!

Honek, hausnartzera eraman behar gaitu. Ezinbestekoa da gure eskubideen urraketei aurre egiteko erantzunak antolatzea eta indarrak batzea. Gure eskubideen aldeko borrokak batzen gaitu eta langileen arteko elkartasunak gure oinarria izan behar du.

LAN GATAZKAK

Tubos Reunidoseko bi langileak absolbitu dituzte

Absolbitu egin dituzte Tubos Reunidoseko bi langileak, fiskaltzak oraindik helegitea jarri dezakeen arren. Kartzela zigorrari egin behar izan diote aurre langileek: bi urtekoari batek eta bederatzi hilabetekoari besteak. 2012an lan-erreformaren aurka eginiko lanuzte batean atxilotu zituen Ertzaintzak.

Lantegira iristeko zeharkatu beharreko zubia moztu zuten langileek 2012an eginiko lanuztean. Argazkia: Aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado

Absolbitu egin dituzte 2012an lan erreformaren aurka eginiko mobilizazio batean atxilotutako Tubos Reunidoseko bi langileak. Langileetako bati bi urteko espetxe[1] zigorra eskatzen zioten, eta bederatzi hilabetekoa besteari. Hala ere, langileen abokatuak adierazi du fiskaltzak oraindik helegitea[2] jarri diezaiokela sententziari.

Azkar atera du Gasteizko epaitegiak sententzia, irailaren 10ean izan baitzen epaiketa. Aste horretan txanda bakoitzeko ordubeteko lanuzteak egin zituzten enpresako langileek, inputatuei elkartasuna adierazteko eta epaiketa salatzeko asmoarekin. Epaiketaren bezperan, berriz, 24 orduko greba egitearri ekin zioten, eta epaiketaren egunean busa antolatu zuten Gasteizera joateko. Elkarretaratzea[3] egin zuten bertan, epaitegiaren aurrean.

Ertzainen kontraesanak

Epaiketa bukatutakoan, langile batzordeko kideek adierazi zuten epaiketan deklaratu zuten ertzainak zenbait kontraesanetan erori zirela.

"2012ko apirilean negoziazioetan sartuak geunden enpresarekin lan hitzarmena dela eta", oroitu du Tubos Reunidoseko langilea den Oier Bidaurrazagak, "*de facto* sartu nahi izan ziguten lan-erreforma, eta horri langileri osoak esan zion ezetz". Enpresak proposatzen zituen neurrien artean Kontsumorako Prezio Indizea erreferentziatzat hartuta bost urtetan zehar eman beharreko soldaten murrizketa eta lan orduen luzapena zeuden. Mobilizazio egun batzuk antolatu zituzten langileek, eta lantegira sartzeko zeharkatu beharreko zubia moztu zuten, maskara zuriak aurpegian.

Lehenengo egunean, baina, ertzainak agertu eta "bortizki eta oso modu neurrigabean" oldartu ziren, hainbat langile zauritu eta bi langile atxilotuaz, Bidaurrazagaren esanetan. Guztira bost langile inputatu zituen poliziak, baina horietako hiruri falta delituak egotzi zizkieten. Horregatik, bi baino ez dira epaituak izan.

Fiskaltzak kartzela zigorra eskatu zuen bi langileentzat, bi urtekoa batentzat eta bederatzi hilabetekoa bestearentzat

"Ni ere zubian egon nintzen"

Epaiketaren data hurbildu ahala, salaketa kanpaina egiteari ekin zioten langileek. "Ni ere zubian egon nintzen, hitzarmen duin baten alde" lema zeukaten kamiseta laranjak egin zituzten horretarako.

"Aldarrikatu nahi izan dugu ez garela gaizkileak, langileak garela eta familiak ditugula. Hitzarmen normal bat eta bizitza lasaia, hori baino ez dugu nahi", azaldu du Asier Vivanco langileak, "baina egin digutena bortizkeria[4] handia da".

***+info:* BIDEOA**
Tubos Reunidoseko langileak greban

Hiztegi lagungarria

Espetxe[1], kartzela / Helegitea[2], errekurtsoa / Elkarretaratzea[3], kontzentrazioa / Bortizkeria[4], biolentzia

_jendartea

SIRIAKO ERREFUXIATUAK

Bosnia atzo, Siria gaur: Aiaraldea errefuxiatuak hartzeko prest

Urduña, Amurrio eta Laudioko Udalak prest azaldu dira Siriako gatazkatik ihesi Europara datozen errefuxiatuei harrera egiteko. Ez litzateke, baina, errefuxiatu-talde bat Aiaraldera datorren lehenbiziko aldia izango. Bosniako Gerra (1992-1995) izan zenean, adibidez, 18 errefuxiatu egon ziren Amurrion bizitzen.

Bosniako 18 errefuxiatu egon ziren Amurrioko kuartel zaharrean. Argazkiak: M. Luengo

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Lehen mailako arazo politikoa da errefuxiatuena. Munduan 15 milioi pertsona inguruk bizi duten egoera[1] da, Nazio Batuen Erakundeko datuen arabera. Ez da arazo berria. Baina orain Europaren atera iritsi da, batik bat[2] bat Siriako gatazkatik ihesean dauden pertsonen etorrerarekin. Errefuxiatuei harrera egitearen gaineko eztabaida sortu du horrek Europa mailan, eta baita Aiaraldean ere.

Hiru dira jada eskualdean errefuxiatuei harrera egiteko prestutasuna adierazi duten udalak: Amurriokoa, Laudiokoa eta Urduñakoa. Hiruretan aho batez[3] onartu dira adierazpenak.

Oraindik ez dago zehaztuta zenbat errefuxiatu etorriko liratekeen eskualdera, baina Laudioko Jendarte Ongizateko zinegotzia den Isabel Bovedak aurreratu du Laudion "7-10 inguru" bertaratzea aurreikusi dutela. Eusko Jaurlaritzak herrian dituen eta hutsik dauden bi pisu sozial prestatuko dituzte horretarako.

Amurrioko Udalak, bere aldetik, jakinarazi du lan-talde bat sortuko duela, "alor hori jorratzen duten taldeekin". Talde hori arduratuko da Harrerarako Tokiko Plana zehazteaz, eta udalak partida ekonomiko bat bideratuko du plan horri ekiteko.

Bosniako esperientzia

Hau ez da, baina, Aiaraldeak errefuxiatuei ongi etorria egingo dien lehenbiziko aldia izango. Hor daude baita Saharatik etorritakoak, adibidez. Baina oraingoarekin antzekotasun gehien duen kasua beste bat da: Bosniako Gerratik (1992-1995) ihesi Amurrion bukatu zuen errefuxiatu taldearena.

Amurrio, Urduña eta Laudioko Udalek errefuxiatuak hartzearen aldeko adierazpenak egin dituzte

Baina ezberdintasun nabari bat dago kasu horren eta gaur egungoaren artean: oraingoan errefuxiatuei harrera egitearen ekimena instituzionala den bitartean, Bosniako kasua eman zenean herritarren eskutik etorri zen ideia.

"Errefuxiatuak hartzeko prest zeuden herriak agertzen hasi ziren, eta horrela bururatu zitzaigun Amurrion ere hori egitea", oroitu du garai hartan herriko emakume elkartean zegoen Irene Novalesek, "Alkatearekin hitz egitera joan ginen eta berak ideiarekiko prestutasun osoa erakutsi zigun". Ondo gogoratzen du Novalesek errefuxiatuak herrira iritsi ziren eguna: "Abenduaren 7a izan zen, eta afari bat prestatu genien ongi-etorria egiteko. 18 kide ziren, hemeretzi itzultzailea kontatuta, eta horietako zazpi umeak ziren". Mazedoniako errefuxiatuen kanpaleku batetik zetozen, eta batzuk oso egoera txarrean zeuden, Novalesen esanetan. "Umeek beldurra zieten hegazkinei eta bizardun gizonei".

Gaur egun San Jose auzoko Kultur Etxea den eraikinean (Guardia Zibilaren kuartel zaharrean) egon ziren errefuxiatuak bizitzen. "Ejertzitoak utzitako oheak eraman genituen", azaldu du Novalesek, "eta jangela eta medikuarentzako tokia ere atondu genituen". Errefuxiatuen arteko elkarbizitza zaila izan zela gaineratu du Emakume Elkarteko kideak, "hainbat perfiletako pertsonak ziren".

Sei hilabete eman zituen bosniar taldeak horrela bizitzen. Eta ondoren? Batzuei lan eskaintzak egin zizkieten Valentzia eta Kataluniatik eta bertara joan ziren. Suitzara joan ziren beste batzuk, eta bikote bat Bosniara itzuli zen. Ametako batek, baina, bere seme-alabekin Amurrion geratzea erabaki zuen.

Novalesek azpimarratu du "boluntario ugari" egon zirela errefuxiatuei laguntzen, "herriak dena eman zuen, lan ona egin zen".

Hiztegi lagungarria

Egoera[1], situazioa / Batik bat[2], batez ere / Aho batez[3], talde guztien adostasunarekin / Alor[4], gai

Jonatan
Moreno
PARTE HARTZEAN ADITUA

_Hankamotz

Local Hero

Hori da Estatu Batuetan erabiltzen den hitza ausardi berezia duen edota kirolean esanguratsua den herri mailako pertsonaiari deitzeko (baita izan dituzten guda anitzetan aritu direnei deitzeko ere). Mundu globalizatu honetan gero eta gehiago erabiltzen ditugu kontzeptu eta jokaera berdinak (oro har EEBBetako esaerak, jokaerak eta baloreak, tamalez). Ideia burura etorri zait ikustean gure inguruko pertsonen jokaera kirola egiterakoan. Duela gutxi, lagun bati entzun nion esaldi erraldoi bat: " Facebooken jarduera kontatzeko aukera egongo ez balitz, kirolari kopurua erdira jaitsiko litzateke", eta arrazoia ez zitzaion falta! (neu be autokritika egin beharko nuke). Ez dakit kasualitatea izan den edo ez, baina sare sozialak hedatu diren hein berean igo da "kirolari-heroi" kopurua (zenbat eta km gehiago eta jarduera gogorragoa hobe!). Ez dakit zein neurrian disfrutatzen duten pertsona hauek egiten duten kirolaz edo bakarrik bilatzen duten komunitatearen errekonozimendua eta goraintziak. Horrela bada, pena ikaragarria da, kirolari baino gaixoak direlako. Eta daukaten gaixotasuna ez da sendatzen kirol gehiago egiten edota sareetan. Gaixotasun hori bizi garen sistemaren esanguratsuenetariko bat da, gaixotasun "soziala", baino erabat latza. Indibidualismo ikaragarria eta norbanakoaren berezitasun bilaketa itsuan bizi gara gero eta berdinagoak garen heinean.

Beraz, egin dezagun kirola, disfrutatu, lagunekin ondo pasa eta osasuntsu sentitu (buruz eta gorputzez), ondoren, nahi izanez gero, konpartitu!

Tele-errealitatea: Aiaraldearrak fokuen argi-ilunetan

Argazkia: www.freepik.es

Safari Wazungu, El Conquistador del fin del mundo, Aventura en Africa, Gu ta gutarrak, Basetxea, Ex, ¿qué harías por tus hijos... hainbat *reality show*-ek izan dituzte parte hartzaile aiaraldearrak. Askotarikoak dira horrelako saioetan izena emateko arrazoiak, baina erreportaje honetan elkarrizketatutako lagunak ados daude gauza batean: platoetako fokuek gauza batzuk argitu eta beste batzuk ilundu egiten dituztela.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado

Ez da txikia *Reality Show*-etan parte hartu duten aiaraldearren kopurua. Erreportaje hau idaztean dozena bat izen baino gehiagoko zerrenda osatu da. Gehienak ETBko *El conquistador del fin del mundo* programa ospetsuan[1] parte hartutakoak dira: Olga Artiñano, Geraxane Ussia, eta Khendud Taki "Jandu" laudioarrak, Ainhoa Barbara eta Dulce Burutxaga amurrioarrak eta Loli Fuste aiararra.

Baina badaude baita bestelako programa batzuetan aritutakoak ere. Ibai Abajo urduñarra *Basetxea* eta *Aventura en Africa* saioetan aritu da, besteak beste, eta Ainhoa Gorordo orozkoarra ETB 1eko *Gu ta gutarrak* saioan dabil.

Parte hartu soilik ez, aiaraldear batzuk irabaztera ere heldu dira. Jabi Abrisketa zolloarra adibidez, *Basetxea* saioan izan zen garaile eta Aitor Martinezek beste horrenbeste egin zuen *Sukaldari* programan. Maika Anguiano arakaldoarrak, bere aldetik, lehen postua lortu zuen *Ex, ¿que harias por tus hijos?* saioan.

Aiaraldea bera ere reality-entzako plato bilakatzera iritsi da. Urduñako Gure ahaleginak txakolindegia *Granjero busca esposa* saioaren lehen edizioko finalaren eszenatoki bilakatu zen. Bertan ezkondu zen saioaren irabazlea izan zen Tito Martinez goiuriarra.

Geraxane Ussia
El conquistador del fin del mundo

"Probak egiteko gai nintzen probatu nahi nuen, erronka pertsonal moduan hartu nuen"

Dulce Burutxaga
El conquistador del fin del mundo

"Programa bukatzean jende guztiak ezagutzen ninduen, apur bat gogorra izan zen"

Motibazioak, denetarikoak

Horrelako telebista saioetan parte hartzeko motibazioak anitzak[2] dira. *El conquistador del fin del mundo* saioko parte hartzaileentzat, probak egiteko gogoa da arrazoi nagusia. "Aurreko lau edizioak telebistan ikusiak nituen", azaldu du Geraxane Ussiak, "eta jakin nahi nuen ea pertsonalki proba horiek egiteko gai izango nintzen".

Oso bestelako arrazoiengatik aurkeztu zen Maika Anguiano *Ex, ¿que harias por tus hijos?* saiora: "Langabezian nengoen eta hilabetea ordaintzen zidaten". Ekonomikoki oso errentagarria suertatu zitzaion erabakia, garaile atera eta 100.000 euroko saria lortu baitzuten berak eta bere senargai ohiak[3]. "Bada dirua", aitortu du, "baina telebistarentzat da %21 eta zure izenean deklaratuz gero ogasunak %50 hartzen duela kontuan hartuta, ez da horrenbeste".

El conquistador del fin del mundo-ri dagokionez, Burutxagak eta Ussiak ziurtatu dute eurek ez zutela ordainsaririk jaso parte hartzeagatik, "irabazleak soilik lortzen du dirua".

Fokuen beste aldean

Elkarrizketatu guztiak bat datoz gauza batean: alde handia dagoela telebistan ikusten denaren eta programaren grabaketan bizitzen denaren artean.

Dulce Burutxaga kazetaria da. Argi zuen telebista saio batera zihoala eta "trikimailu asko" egongo zirela. "Edizioa nabaritzen da", azaldu du, "parte hartzen zaudenean arazo batzuk sortzen dira, baina bizitza normalean bezala konpontzen genituen. Telebistan ez zen hala ikusten".

Maika Anguiano
Ex, ¿qué harías por tu hijos?

"Parte hartzaile maltzurraren rola ezarri zidaten, horrela irudikatzen ninduten beti"



Abel Fernandez
Zazpi aldiz aurkeztu da

"'El conquis'-erako lau aurkezpen bideo egin ditut 'Aiarako armiarma' moduan"

Anguiano bat dator baieztapen horrekin: "*Ex, ¿qué harías por tus hijos?* saiorako argazkiak egiten ari ginela, argazkilariak argazki batean aurpegi serioa jartzeko eskatu zidan. Gero hori izan zen erabili zuten argazkia, beste parte hartzaileak argazkietan irribarretsu agertzen ziren bitartean. Maltzurraren rola eman nahi zidaten". Hortik aurrera perfil hori indartzen saiatu zirela uste du Aguianok. "beste parte hartzaileei laguntzen agertzen nintzen zenbait zati moztu zituzten, adibidez".

Arakaldoarrak adierazi du "oso txarto" pasatu zuela programaren grabaketan, "zure atzetik dabiltza uneoro egiten duzun guztia grabatzen". Baina berarentzat gogorrena programaren lehen atalen ostean hainbat pertsona ospetsuren artean egiten zen debatea izan zen, "oso latza egiten zitzaidan ezertaz ezagutzen ez ninduten pertsonak nire bizitzaren inguruan hitz egiten ikustea".

Ospearentzako botika, denbora

Behin programa bukatuta, beste erronka zail bati egin behar izan ohi diote parte hartzaileek aurre: ospeari. "Programa bukatzean jende guztiak ezagutzen ninduen", oroitu du Burutxagak, eta aitortu du "apur bat gogorra" izan zela. Denbo-

ra da famarentzako botikarik onena. "Saioa bukatzean jende gehiagok ezagutzen ninduen", azaldu du Ussiak, "baina orain jende gehiagok ezagutzen nau atleta moduan egin dudan ibilbideagatik duela sei urte *El conquistador del fin del mundon* parte hartu izanagatik baino".

Saiatu direnak, are gehiago

Tele-errealitate saioetan parte hartu duten aiaraldearrak asko badira, are gehiago dira saiatu direnak. Abel Fernandez Mendibil amurrioarra zazpi aldiz aurkeztu da 'El conquis'era, eta jada lau bideo egin ditu aurkezpen gisa. Azken bideoan 'Aiarako armiarma' bezala aurkeztu da, Spidermanen jantzia soinean[4]. "Proben teknikak entseatu egin ditut, eta Patagoniara joan nintzen Julian Iantzirekin bidaia gidatu batean".

Iñaki Olabarrieta arrankudiagarra ere zazpi aldiz aurkeztu da saiora, baina geroz eta gogo gutxiago du parte hartzeko. "Morboari geroz eta garrantzi gehiago ematen ari zaio, proben kaltetan".

Hiztegi lagungarria

Ospetsu[1], famatu / Anitzak[2], ugariak eta ezberdinak / Ohia[3], jada ez dena / Soinean[4], jantzita

SAFARI WAZUNGU

"Saioa modu batekoa izango zela esan ziguten, baina gero gogorragoa izan zen"

EDU GAVIÑA "Yogurinah borova"-k (Laudio, 1969) ETB-2n estreinatu berri den Safari Wazungu telebista saioan parte hartu du, Eduardo Iturralde Gonzalez arrankudiagarrarekin batera.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Zerk bultzatu zizun horrelako telebista programa batean parte hartzera?

Deitu egin zidatenean eta "reality" hitza entzun nuenean ez nuen gogo askorik izan egiteko. Hiru-lau egun eskatu nizkien, pentsatzeko. Familiarekin eta lagunekin hitz egin nuen. Joateko neukan arrazoi nagusia Afrika ezagutzea zen.

Programaren arduradunek esan ziguten saioa modu batekoa izango zela, eta azkenean beste modu batekoa izan zen. Oso lasaia izango zela esan ziguten, eta azkenean nahiko gogorra suertatu zitzaigun.

Jan gabe egon ginen askotan, gutaz etengabe arduratzen ziren arren. Hori bai, izugarrizko esperientzia izan da, mundiala, oso-oso polita.

Egoera horretan, nolakoa izan da parte-hartzaileen eta grabaketa lan-taldearen arteko elkarbizitza?

Lan-taldea alde batetik eta gu bestetik, gure bizitza egiten. Nahiko pertsona ezberdinak izan gara parte hartzaileak, eta azkenean uste dut nahiko ondo moldatu egin garela. Argi eta garbi genuen ez genuela "reality" moduko bat egin nahi.

Ez zaude kanpin batean. Sua egin behar duzu, janaria prestatu... janaria geroz eta gutxiago izaten zen, nik bost kilo argaldu nituen grabaketak iraun zuen hogei egunetan, eta hori jada nahiko argala nintzela. Baina elkarren artean asko laguntzen du ginen eta aurrera joatea lortu genuen.

AIARALDEAK 5 URTE BETE DITU

*Elkartearenak ez diren arrazoiengatik Aiaraldea Komunikazio Leihoak **ezingo du** aurrez egongo diren **sorpresa eta ekitaldi moloien berri jakin** (behingoagatik lana albo batera utzi eta festaz gozatzeko espazio hau ere inbaditu diegu), eta ez hori bakarrik. **URRIAREN 3an JAIARALDEA** egitera goaz, Kaxianok ezingo du akordeoiarekin etorri (gabe ere ez) baina zorionak zuri abestuko dugu **DJ Makala**rekin, Argiñano ez da etorriko baina **jaki eta edari mundialak** egongo dira, leku eta kontzertu berezi batean **musikari eta aktoreekin** iluntze eta gau magiko bat igaroko dugu, 3 Dimentsiotan ez baina dimentsio handiarekin, zurekin, **mundu guztiari irekitako festa batean**, zu ere ospakizun honen parte baitzara. Egun arrunt batean, zerbait berezia gerta liteke.*

ETA ZU, ETORRIKO ZARA?

MEREZI DUEN URTEBETETZE JAIA PRESTATUKO DUGU!

URRIAREN 3AN OSPAKIZUN MUNDIALA!

ETORRI NAHI BADUZU

BIDALI WATXAP BAT 688 647 942 TELEFONORA ETA ESAIGUZU EMOTIKONO BATEN BIDEZ NOLA ETORRIKO ZAREN JAIRA

GU HORRELA GOAZ

EDO QR KODE HAU IRAKURRI:

Bidali Watxapa eta jaira etortzeko jarraibide sekretuak bidaliko dizkizugu!

#jaiaraldea

_kultura

MUSIKA

Fita Fik musika eskola, hanka bat klasean, kalean bestea

Duela 16 urte sortu zen Fita Fik musika eskola, Urduñan. Gaur egun Laudion ere ematen dituzte klaseak, eta hainbat adinatako dozenaka ikasle dituzte, Aiaraldekoak zein eskualdetik kanpokoak.

ERREDAKZIOA I | Txabi Alvarado

Fitek ematen diote soinua albokari. Duela hogei urte inguru, Urduñako txistu alarde batean, albokarietako bati fita erori zitzaion. Alarde osteko[1] bazkarian barre ugari egin zituzten horren harira. "Fitak fit egin dizu", esan zion batek albokariari. Inortxok ez zuen orduan imajinatuko hortik etorriko zela handik urte gutxira sortuko zuten euskal soinu tresna eskolaren izena: Fita Fik.

"Urduñako txistulari talde batek sortu zuen eskola, duela 16 urte", hasi da Mikel Barros kontatzen. Hasiera batean txistua irakastea beste helbururik ez zutela azaldu du Fita Fik-eko kideak, "baina denbora aurrera joan ahala beste instrumentu batzuk irakasteari ere ekin zioten: alboka, txalaparta, nafar gaita, panderoa... eta baita musika hizkuntza ere".

Eskolaren indar guztiak trikitixaren eta albokaren irakaskuntzan jartzea erabaki dute orain, horiek direlako harrera onena duten instrumentuak

Trikitixa eta alboka nagusi

Proiektua zabaltzen joan zen apurka-apurka, eta Laudion ere klaseak ematen hasi ziren. Aurten, baina, irakasten dituzten instrumentuak alboka eta trikitixara mugatzea[2] erabaki dute Fita Fik-eko kideek. "Erabaki garrantzitsua izan da, apustu handia", azaldu du eskolan trikitixa irakasten duen Ruben Garateak. "Instrumentu horiek pisu handia hartu dute azken urteetan, eta indar guztiak euretan inbertitzea erabaki dugu".

Barros ere bat dator bi instrumentu horiei emandako garrantziarekin. "Trikitixak eskualdean beti izan du indar asko", baieztatu du, eta gaineratu du albokarekiko harrera[3] orain hasi dela "pixkanaka-pixkanaka" igotzen. "Alboka irakasten hasi nintzenean 4-5 ikasle baino ez nituen", oroitu[4] du, "aurten 22 inguru izango dira".

Klasetik kalera

Barrosek argi du zein faktorek eragin duen alboka eta trikitixarekiko harreraren igoeran: kaleko presentziak. "Instrumentu horiek klasetik kalera ateratzea lortu dugu", ziurtatu du.

Ez dira gutxi Fita Fik-eko kideek Aiaraldean zehar egiten dituzten kalejira eta kale-kontzertuak. "Jaietan, Gabonetan, San Blas egunean, Santa Zezilia egunean, Inauterietan...", hasi da Garatea zerrendatzen. "Eskualdean zer edo zer dagoenean saiatzen gara ateratzen, eta baita kanpotik deitzen gaituztenean ere".

SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformak antolatutako Parke Egunean ere egon ziren, trikitixari buruzko klase didaktiko bat eskaintzen. Ikasle eta irakasleek osatutako "talde finko" moduko bat dute horrelako ekimenak[5] egiteko.

Musika ikasteko, adinik ez

Askotarikoak dira Fita Fik-en dabiltzan ikasleen perfilak. "Denetarik daukagu", adierazi du Garateak, "zazpi urte ditu ikasle gazteenak, eta 65 zaharrenak".

Izan dute baita ere 80 urtekoren bat. Baina adin-tarte ohikoena 13-14 urtekoa dela aitortu dute eskolako kideek. Hala eta guztiz ere, azpimarratu dute adinak ez duela axola instrumentu bat ikasteko orduan. "Helduak[6] diren ikasle askoren kezka izan ohi da ea nagusiegiak diren instrumentu bat jotzen ikasteko, eta guk beti esaten diegu ezetz", ziurtatu du Barrosek.

Zer egin behar da, bada, eskolan izena emateko? "Laudioko eta Urduñako egoitzetara gerturatu", azaldu dute Fita Fik-eko kideek. Laudion udaletxe zaharrean dago eskola, hirugarren pisuan. Urduñan berriz, FPko bedelaren etxean izandakoan.

Eskolatik jakinarazi dute iraila osoan zehar egongo dela irekita izena emateko epea.

BIDEOA: *Fita Fik musika eskola, barrutik*

Hiztegi lagungarria

Osteko[1], ondorengo / Mugatu[2], limitea jarri / Harrera[3], errezepzioa / Oroitu[4], gogoratu / Ekimenak[5], iniziatibak / Helduak[6], nagusiak

Patxi
Iturregi
IDAZLEA

_Kamerinoa

Plastiko beltzaren atzean

Irailak bi berri esanguratsu ekarri dizkigu, zein bere mailan onarpenik ezarekin eta besteekiko ezaxolarekin zerikusia dutenak. Lehenengoa hurbil samarretik heldu zaigu, Hondarribitik, hain zuzen ere; eta bigarrena, berriz, Mediterranioko kostaldeetatik.

Azken urteotan, irailaren 8an, gorago aipatu dudan Gipuzkoako udalerri horretan, Jaizkibel konpainia Kale Nagusitik pasatzen denean, plastiko beltz bat zabaltzeko ohitura hartu dute bertako zenbait herritarrek, alarde parekidearekiko desadostasuna erakusteko. Niri ikono triste bilakatu den irudi hori oso gogorra egiten zait, irraingarria eta duintasunaren kontrakoa, herrikideen arteko begirune falta eta ezinikusi izugarria erakusten baitu. Hor daukagu denborarekin usteltzen ari den gatazka bat, eta herri agintariak ez dira errugabeak, ez baitute ahalegin handirik egin egoera bideratzeko, Emakunderen aholkuak gorabehera.

Beste albiste tamalgarria, berriz, Europako hego-ekialdeko itsasertzetatik iristen zaigu gero eta maizago, egia esan, ez dago egunik biktimarik gabe igarotzen denik. Siriar errefuxiatuena XXI. mendearen hasierako tragediarik lazgarrienetako bat da, zalantzarik gabe. Eta hor Europar Batasuneko gobernuen itsukeria handia ageri da, baita herritar xumeon ezaxola ere. Ematen du geuk ere plastiko beltz erraldoi baten atzean ezkutatu nahi dugula geure burua, gure kontinentearen atarian bertan gertatzen ari den izugarrikeria ez ikustearren.

_kultura

MUSIKA

"Beti izan naiz nahiko lotsatia abesterako orduan"

AIALA MENDIETA URREZTI (Laudio, 1997) duela urtebete hasi zen reggaea oholtza gainean abesten.

ERREDAKZIOA I

Duela urtebete hasi zinen oholtza gainean abesten, baina zaletasuna lehenagotik datorkizu.

Beti izan naiz nahiko lotsatia abesterako orduan. Kanta bat idatzi nuen, progatzeko. Ez nuen uste gai izango nintzenik abesti bat idazteko, baina azkenean nahiko ongi sentitu nintzen idazten, eta egindakoa nire nebari erakutsi nion.

Nire neba Julen Lyrikanen(Laudioko beste reggae abeslari bat) laguna denez hari erakutsi zion eginikoa eta orduan Julenek bere estudiora grabatzera joateko esan zidan.

Momentuz bi abesti argitaratu dituzu. Egiten zoazen kantekin maketa bat osatzeko asmorik duzu?

Dacehall generoko abesti bat argitaratu berri dut. Momentuz abesti solteak kaleratuko ditut eta saiatuko naiz abesti baten eta bestearen artean denbora tarte luzerik ez uzten. Eta bai, badut ere maketa egiteko intentzioa.

Zure abesti propioak abesten dituzu beti?

Nik nire abestiak abesten ditut beti. Nahiago dut nire abestiak kantatzea; azken finean, zuk zeuk idatzitako letrak direlako, zureak.

Bukatzeko, zer esango zenioke abestea gustuko duen baina oholtza gainera salto egitera ausartzen ez den pertsona bati?

Animatzeko esango nioke, azken finean jendearen erantzuna beti izango delako positiboa. Ez dut uste inork esango dizunik ez abesteko edo txarto abesten duzula. Aukerarik onena da, nire ustez.

Jon Muñoz

IRAKASLEA

_Lurpetik

Ume soldadua (I)

Euskal lurraldeetan emandako Bigarren Gerra Karlistaren hasieran, sarjentu batek agindutako karlista talde bat, Laudioko etxe batera heldu eta hamabi urtetako ume umezurtza errekrutatzen zutela adierazi zuten. Senideen harridura aurpegiaren aurrean argi adierazi zuten hurrengo goizean herriko plazan ez agertzekotan bere aitite eta anaia herriko plazan gogor zigortuak izango zirela.

Aurkezteko unea heldu zenean umea ez zen esandako lekuan azaldu, herriko plazatik hurbil zegoen gune batean ezkutatu zen, karlistek egindako mehatxua beteko zuten itxoiten. Baina karlistek, umea agertzen ez zela ikusita, aitite eta anaia herriko plazara eraman zituzten eta hauek jipoitzera zihoazenean umea ziztu bizian hurbildu zen.

Arabar tertzioetan sartuta Jurramendiko guduan borrokatu zuen lehen aldiz, fusil eta baionetarekin. Posizio liberalen kontrako lehen erasoan bateria bat lortu zuten eta baionetak erabiliz pertsona batzuk hil zituen, liberalen tiroek aurrera egiteko aukera oztopatuz.

Atseden une horretan babestutako inguru batetara hurbildu zen bere beharrak egiteko eta gertatutakoaren inguruko gogoeta egiteko.

Bere horretan zegoela susto ikaragarria hartu zuen, ezkutatutako ofizial liberal bat ikusi zuenean. Ikustearekin batera fusila altxatu eta baioneta sartzeko gogoa eduki zuen, baina ofizial liberala belauniko jarri eta ez hiltzeko erregutu zion.

Amurrion eta Laudion estreinatuko da Luis Vilen lehen film luzea

ERREDAKZIOA I

Luis Vil musikari eta zinemagile amurrioarrak bere lehen filma luzea bukatu berri du. *Excisión* du izena, eta pisu psikologiko handiko lana da, egilearen esanetan. "Umetan trauma bat bizi izan zuen pertsona baten istorioa da, ostean inolako terapiarik jaso ez zuen pertsona baten istorioa", azaldu du.

Iazko udazkenean ekin zion filma errodatzeari. Grabatutakoaren edizio lanetan murgildua egon da zinemagilea abendutik hona.

Filma Aiaraldean grabatua dago, eta eskualdean ikusi ahal izango da lehenbiziko aldiz. Amurrion irailaren 27an proiektatuko da. Laudion, berriz, urriaren 4ra arte itxaron beharko da. Bi emanaldiak arratsaldeko zazpietan izango dira.

Ondoren, Euskal Herriko zein "Europa edo Asiako" hainbat areto[1] eta jaialditan aurkezteko asmoa adierazi du Vilek. Film luze bat egitea esperientzia "gogorra baina bizia" izan dela adierazi du sortzaileak, eta ez du baztertzen[2] errepikatzeko aukera.

Hiztegi lagungarria

Areto[1], sala / Baztertu[2], albo batera utzi



Filmaren kartela.

_kirola

RAIDA

"Korrika asko egitea baino, nora eta nondik egin da garrantzitsuena raidean"

AARON GARMENDIA (Laudio, 1983) raid txapelketetan aritzen da. Hainbat erresistentzia probez osatutako diziplina da raida. Hori dela eta, hainbat kirol praktikatzen ditu Garmendiak eta mundu osoko txapelketatan aritu izan da.

ERREDAKZIOA | Irati Moreno

Azalduko diguzun zertan datzan raid froga bat?

Raid bat abentura froga bat da, erresistentzia jarduera dibertigarri bat, orientazioa eta bi kirol froga (gutxienez) izango dituena.

Proba hasieran, parte hartzaileei mapak banatzen zaizkie. Mapa horietan hainbat mugarri daude irudikatuta eta bakoitzak puntuazio jakin bat dauka. Parte hartzaileek ibilbide egokiena aukeratu eta denbora jakin baten barruan ahalik eta mugarri gehienetatik pasatuz ahal den puntu gehien lortzea dute helburu.

Egiten dituzun kirol guztietatik zein da gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? Zergatik?

Kirol guztiak dira ezberdinak, eta ezin dut esan bata bestea baino gehiago edo gutxiago gustatzen zaidanik. Konpainiak eta inguruak egiten dute raidaren edozein espezialitate eder. Zorionez, raidetan taldean aritzen gara eta egoten diren parajeak ederrak izaten dira maiz[1].

Zein da egiten dituzun kirol guztietatik prestakuntza gehien eskatzen duena? Zergatik?

Raidetan korrika eta mendi bizikleta dira garrantzi handiena duten probak, ordu kopuruak kontuan hartuta. Horiei eskaini behar diet entrenatzeko denbora gehien, astean 5-6 egun. Baina noski, kirol honek badu besteek ez duten gauza bat: orientazioa. Berdin du oinez zein bizikletaz egin, uneoro[2] antolakuntzak emandako mapa oinarri, nire bidea jorratzen joan behar dut. Raida ez du ezinbestean korrikalari onenak irabazten.

Beste kirolei arreta gutxiago eskaintzen diet, eskalada, kayaka eta patinak noizbehinka hartzen ditudan arren.

Zer da orientazio proba baterako behar dena? Orientazio proba mota ezberdinak daude?

Oinez joateko orientazio proba batek ez du gauza handirik eskatzen. Iparrorratza eta antolakuntzak ematen duen mapa besterik ez. Disfrutatzeko kirola da, txikitatik jolastutako "altxorraren bila" jolasaren xarma[3] du. Ezkutatutako kontrol puntuetara joan behar duzu ahalik eta azkarren.

> "Raidetan, korrika eta mendi bizikleta dira garrantzi handiena duten probak, eta horiei eskaini behar diet entrenatzeko denbora gehien"

> "Disfrutatzeko kirola da, txikitatik jolastutako 'altxorraren bila' jolasaren xarma du"

Zer gomendio emango zenioke orientazio proba batean lehenengoz parte hartzen duenari?

Galtzeari beldurra galtzea! Hitz jolasa ematen du, baina jendarte honek ez digu kale[4] egiten uzten, dena kontrolpean izaten saiatzen gara.

Baina arraroa ematen duen arren, menditik galduta ibiltzeak asko irakasten dizu. Galtzeak gure kontrol galera dakar, eta berreskuratzen saiatzeak gure dohainak garatzen ditu: zure ingurua miatzen hasten zara, erreferentziak topatzen, ezagutzen duzun lekuren bat bilatzen... orain arte inor ez da basoan geratu, nik dakidala.

Behin hori lortuta disfrutatzera etorri. Duda barik errepikatuko dute.

Delikan egindako proba zuk prestatu zenuen?

Bai, 4 hilabetez egon nintzen hango mapa prestatzen. Bide guztiak marrazten, landaretza, hesiak, ibaiak... Bukatu bezain laster deia luzatu nuen internet bidez, eta uste baino partaide gehiago egon ziren, 350 inguru. Inguruaren edertasuna lagun izan nuelako, egia esan.

> "Konpainiak eta inguruak egiten dute raidaren edozein espezialitate eder"

> "Raidetara disfrutatzera doanak esperientzia errepikatuko du, dudarik gabe"

Latiorroko jaietarako orientazio jolas herrikoia antolatu duzu. Zer moduz joan da?

Oso ongi. Oso partaidetza heterogeneoa egon zen. Guraso pilo bat umeei jarraika eta hainbat ume gurasoei ezin jarraituz ere. Orientatzaile petoak. Denak disfrutatzen eta bakoitza bere erritmora. Guztira 107 partaide egon ziren. Harrera ona izan zuen, beraz. Dagoeneko jaso dut hurrengo batean egiteko eskaera.

Beste herrialde batzuetatik aritu zara probak egiten. Nondik aritu zara?

Euskal Herritik kanpora askotan irteten gara, bai raidetan eta baita orientazio probetan ere. Iberiar penintsulako toki askotatik ibili gara: Katalunia, Asturias, Teruel, Valentzia, Aragoi, Errioxa, Palentzia... Frantzian eta Korsikan ere ibili gara.

Hiztegia lagungarria

Maiz[1], sarritan, askotan / Uneoro[2], momentu guztietan / Xarma[3], lilura / Kale egin[4], huts egin

_Urduñako mendi duatloia

Jesua Calvo eta Ibai Aspizua

"Denbora hobetuz, aurrera jarraituko dugu"

Hamarrak eta erdiak. Urduñako enparantzan, jende guztia irteera lekuan dago, ni haien artean. Urduritasuna eta gogoak. Irteera seinalea entzun eta abiatu naiz nire helburuak betetzera. Hasierako kilometroan jendea topera doa, baina nik badakit nola joan behar dudan. Trankoko zonaldean aldapa gogorra igotzen hasi naiz, nire hanketan mina sentitzen dut, baina adrenalinak aurrera jarraitzen laguntzen dit. Bedarbide-Txozako zonaldean gora -behera askorekin topatzen naiz, nire indarrak amaituz doazela uste dut. Orain "eskonbreratik" noa, azken esfortzua egin eta dena behera, psikologikoki aldapa oso txarra, baina egin dut. Hau amaituta, 3 kilometro aldapa behera: Nire barnetik indar guztiak atera eta behera noa ahal bezain azkar. Azkenik, plazara heltzen naiz eta nire lagun Jesuari erreleboa ematen diot.

Bizikletara korrika joan, hartu, eta irteera azkarra egin dut nire ustez. Jendea pasatzen hasi naiz, eta oso indartsu nago. Trankoko aldapa oso arin igotzeak animatu egin nau. Kilometroak pasa, eta nire hankak potentzia galtzen doaz. Nire helburuan bakarrik erreleboetako jendea dago. Baina, ia Txozako bidean Molina atzetik ikusi dut, eta horrek, oso urduri jarri nau. Berarekin kilometro gutxi batzuk egin eta gero, jaitsieran, bere atzetik geratzen naiz. Ez dut ikusten, nahiz eta nire indar guztiak eman, galdu egin dut. Urduñako kaleetatik abiadura handian noa, eta enparantza jendez beteta ikusteak nire azkena ematera animatzen nau.

Erreleboa hartuta, nire aurretik, minutu bakar batera aurkari bakarra. Barnetik indar guztiak ateratzen ditut eta esprintean korrika noa. Kaleetatik barrena topera noa, baina, ezin dut nire aurkaria harrapatu. Azkenik, 2.postuan heltzen naiz helmugara. Pozik lortutako emaitzarekin; aurrez pentsatutako denbora jaitsi dugu. Lehengo errelebo lokala lortu dugu eta 2.postua errelebo orokorrean.

_kirola

FUTBOLA:

Eskualdeko talde gehienak denboraldi aurrean daude

Amurrio, Urduña, Arrankudiaga eta Laudioko futbol taldeek hasi dituzte denboraldi aurreak. Amurrio da, oraingoz, denboraldi aurrearekin bukatu duen bakarra, eta oso modu onean bukatu du gainera. Urduña, Arrankudiaga eta Laudioko taldeek berriz, urrian bukatuko dituzte eta orduan emango diote hasiera ligari.

HERRI KROSA:

Irailaren 27an, igandea, izango da "Urduña Hiria" herri krosaren XI. edizioa

"Urduña Hiria" herri krosaren XI. edizioa izango da aurtengoa. 11:30ean izango da hitzordu nagusia eta ibilbidea 10.548 metrokoa izango da. "Txikikrosa" eta paralinpikoen lasterketa, ordea, 12:40ean hasi eta 1500 metrokoak izango dira. "Minitxikis" lasterketa ere egongo da; 600 metro egin behar izango dituzte parte hartzaileek.

IRRISTAKETA

"Irristaketa egiteko materiala utzi dezakegu, probatzeko"

NAIARA OLABARRIETA (Amurrio, 1978) Amurrioko irristaketa klubeko kidea da. Klub hori da Amurrioko Patin Eguna antolatu zuena, iragan irailaren 13an.

Naiara Olabarrieta Patin Egunaren antolatzaileetako bat da. /Naiara Olabarrieta

ERREDAKZIOA I Irati Moreno

.Zer moduzkoa izan zen Patin Eguna?

Oso ona. Pena euria egiten hasi zela ibilbide handia egiten ari ginela. Dena den, partaidetza handia eta oso giro ona egon zen.

Urtean zehar zer da klubak egiten duena?

Orain arte ostiral arratsaldeetan Matiasen klaseak eman izan ditugu, bai umeentzat eta baita helduentzat ere. Zerotik hasteko ere, badugu materiala jendeari utzi ahal izateko eta probatu dezan.

Ondoren, irristalari trebeenek Euskadin zein kanpoan egiten diren hainbat probetan parte hartzen dute.

Kanpora zoazte martxak egitera? Hau da, asko mugitzen zarete?

Bai, hemen ere denetarik dago. Proba gehienetarako jendea nahiko mugitzen da. Adibidez, Gasteizko Martin Fiz maratoia patinekin egitera, Berlingo maratoira... Landetara ere, asteburu osoko proba bat egiten baitute maiatzean han. Calafaten eta Alcañizen, adibidez, abiadurako zirkuitu batzuk daude. Hainbat lehiaketa egin dira han, eta parte hartu izan dugu. Horregatik esaten dut denetarik dagoela.

Noiz biltzen zarete zuek irristatzeko?

Ematen ditugun klase egunez gain eguraldiaren arabera eta bakoitzaren eginbeharren arabera elkartzen gara. Gasteiza joaten gara buelta bat ematera edo herrian bertan... Eguraldiagatik errazagoa da udan elkartzea neguan baino.

Uste duzu irristaketak gero eta indar gehiago duela?

Nik beste urte batzuekin ezin dut konparatu. Baina orokorrean egia da jende asko dagoela irristaketa praktikatzen duena. Laudion, adibidez, irristaketa artistikoa irakasten hasi dira eta badoa jendea. Beraz, nik uste dut jendea animatu egin dela. Kaletik jende gehiago ikusten dudala uste dut.

6-16 urte bitarteko jokalarien bila dago Sugarrak Laudio Saskibaloi kluba

ERREDAKZIOA I

Sugarrak Laudio Saskibaloi Kluba 2015-2016 denboraldirako neska-mutilen bila dabil. Adin -tarte zabal bateko jokalariak bilatzen dabiltza, 6 urtetik 16 urtera bitartekoak.

Informazio gehiago nahi izatekotan kiroldegira jo edo 626378665 telefono zenbakira deitu daiteke.

Doako matrikulazio kanpaina abiatu du Bañueta kiroldegiak

ERREDAKZIOA I

Amurrioko Bañueta Udal-kiroldegiak doako matrikulazio kanpaina jarri du martxan instalazioen erabilera sustatzeko eta bazkide berriak erakartzeko.

Kanpaina horretaz baliatzeko baldintzak honakoak dira: sei hilabete egon beharko da gutxienez matrikulatuta, 2016ko martxoa barne; dagokion hilabeteko kuotak ordaindu beharko dira eta altan eman ondorengo ordainketak eginak egon beharko dira.

Ekimen hau ez dago Amurrioko herritarrei soilik zuzenduta, Aiaraldeko edozein herritako biztanleei ere irekia dago. Informazio gehiago beharizanez gero, Bañueta Kiroldegira hurbildu (Abiaga kalea), edo 945 393 642 telefono zenbakira deitu daiteke.

Kurtsoak

Horretaz gain, hainbat kurtso jarriko ditu martxan kiroldegiak. Gaur (irailak 24) bukatzen da urte osoko kurtsoetan izena emateko epea.

Aingeru Castro lehena Euskal Herriko rally spring-ean

Alaitz Urkiola kopilotuarekin batera dago Castro lehen postuan. / Raul Castro

ERREDAKZIOA I

Aingeru Castro rally spring gidaria lehen postuan doa Euskadiko Txapelketan. Hamar lasterketek osatzen dute motordun norgehiagoka. Denboraldi bikaina egiten ari da gidari laudioarra, Alaitz Urkiola kopilotuarekin batera.

Bi lasterketa baino ez zaizkie falta Castro eta Urkiolari Euskadiko Txapelketa amaitzeko. Urriaren 19 eta 20an izango da hurrengo zita, Aramaion. Azkena, berriz, urriaren 31n egingo da, Karrantzan.

Iaz ere txapeldun izan zen Castro, aita kopilotu zuela.

Hiztegia lagungarria

Norgehiagoka[1], txapelketa

Eskaintza 2015eko urriaren 15era arte
MATRIKULA DOAN
Kirolzer
60€ arte AURREZ DEZAKEZU
Instalakuntzen erabilera librea
✓ Igerileku klimatizatuak
✓ Muskulazio aretoa
✓ Erabilera anitzeko aretoak
✓ Kirol anitzeko kantxa
✓ Squasha
✓ Boulderra
✓ Jacuzziak
✓ Sauna
✓ Bainur turkiarra
✓ Dutxa ziklonikoa
✓ Udako igerilekuak*
* Bazkideak urtarriletik
SUSTAPENERAKO BALDINTZAK
✓ Urrian alta hartzeko
✓ Gutxieneko permanentzia: 6 hilabete (Martxoa barne)
✓ Ordainketa guztiak egunean izatea ezinbestekoa
BAÑUETA KIROLDEGIA · Abiaga kalea, 2 · 01470 AMURRIO · Tel. 945 39 36 42

_Herriko plaza

_agurrak

Aimar
Zortzi urte bete dituzu. Zorionak eta urte askotarako laztana!
Familia

Aritza
Zorionak eta musu handi bat Aita,ama eta Gaizkaren partez!
Aita, Ama eta Gaizka

Itziar
Zorionak Itziar, laster zure urtebetzea izango da!
Erlea eta gainerakoak

Ivan
Aupa Gilito! Zorionak! Gero eta nagusiagoa zara!
Naroa eta Javi

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera urriaren 2a baino lehen.

_denborapasak

	Tafallako Datilondoen fruituak	▼	Erraz ❖ IZENA	▼	Nafarroa Behereko herria Lore	▼	Gorotzak	
	▶		▼		▼		▼	
	Jakintza mota Ubideak	▶						
	▶							
Afrikako estatua ❖ DEITURA	▼	Ipar EH-n, izu Nabarmen	▼	Litioaren ikurra Itsas arrain	▶		Iratzea, garoa Ikurra	▶
▶		▼		▼			▼	Arkuaren erdian Jainko egiptoarra
Erraz maitemintzen da Euskal sindikatua	▶							▼
▶			... sendia eta berendia Arnas ezak hil	▶				
Bezain ... edo zart, erabaki!	▶		▼		Non atzizkia Ea ba!	▶		Kasik Naizen hau
▶				Diruzko zigorrak Kontsonantea	▶ ▼			▼
Emakume izena	▶			▼		Adi ezazu!	▶	

								Aintzira
			50 Joan den urtean	▶ ▼				

❖ Zinema zuzendari laudioarra.

ERRAZA

	6		7	1	9		2	
4			2			6		9
					6	3	1	
						9		1
	3	7	6			5		8
		9	3	2	1			
		4	9	6	8	1	5	
3	1				5	8		

NORMALA

		7			1	8		
5							1	
1		9	6					
8	2	5			6	9		
7		4	3				6	5
9	6			2		4		7
4								
	9			6				
			9	1	3	7		6

ZAILA

				3			2	
	8		5	6		7		4
		1		9	2			8
2		7	3			9	4	
6							3	
5		3		7	4	2		
		4	9		3			
				2	6			
			8	4				

OSO ZAILA

				9		5		3
					4			6
		2	8	5				
		9				2		
	4		3					
	7				8		4	9
	5			6				8
	6			7	3			
3							7	

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18
Giltzak galdu, lanak ahaztu... Halakoak gertatzen zaizkizu ala? Burua oraindik oporretan al duzu? Errealitatera bueltatzeko ordua heldu da, kontzentratu zaitez zure egunerokoan oporrek oparitzen dizuten deskonekzioaz gozatzeko gero.

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20
Gurasoak oporretan joan direla eta etxean bakarrik egoteari beldur diozula? Ez itzazu senide eta lagun guztiak etxera gonbidatu, ausarta izan eta beldur hori gainditzen saiatu, aurre egiozu, zu bakarrik edozer egiteko kapaza zara eta!

HERENSUGE
03.21-04.20
Kurtso hasiera gogorra iruditzen zaizu, urte osoan zehar egin behar duzun guztiaren azalpena eta kezka dira nagusi klasean. Baina hasi baino ez duzu egin, egitekoak heltzen diren heinean bete itzazu, ez larritu aldez aurretik eta animo!

LAMIA
04.21 - 05.20
Epaile izateko joera daukazu. Zergatik dena epaitu egoerak eta pertsonak ezagutu aurretik? Ez al dugu guztiok beste aukera bat merezi? Ez al duzu uste askotan itxurak barnekoa mozorrotzen duela? Ez izan burugogorra, besteek ere zu horrela ikus zaitzakete eta.

BASAJAUN
05.21 - 06.20
Teknologia gustuko duzulako aitzakiarekin produktu berri guztiak erosten dituzu. Estu eta larri zabiltza gero lagunekin hartzen duzun pote hori ordaintzeko. Lehentasuna daukaten gauzen zerrenda egin eta berrantolatu!

BASANDERE
06.21 - 07.20
Besteen kritikekin itotzen ari zara. Arrazoia ezagutu barik zure burua galdekatzen duzu eta leporatzen dizkizuten tontakeriak sinistu eta horiengatik barkamena eskatzen duzu une oro. Sinistu amak beti esaten duena: inbidia da etsai nagusia.

GAUEKOAK
07.21 - 08.21
Futbolzale amorratu hori... kirolarekin umorea bat datorrenean kaltegarri bihurtzen dira zaletasunak! Partidu bat galdu eta ingurukoekin eztabaida hasten duzula? Jokoak baldintzatzen bazaitu hausnarketa egin!

JENTILAK
08.22 - 09.22
Kanpoan egoteagatik herrian gertatzen den guztia galtzen duzula uste duzu. Zurrumurru asko galduko dituzu, baina ez arduratu, egunero sortu eta desagertzen baitira. Garrantzizko gauzak berehala helduko zaizkizu, olatuak bailiran mugitzen dira eta.

AKERBELTZ
09.23 - 10.22
Zure nagusiak bidaltzen dizkizun proiektu guztiak betetzeaz gainera, bikain egiteko eskatzen dizu. Arnasa hartu, ahal denean dena, eta ezin denean ahal dena, ez ahaztu!

MARI
10.23 - 11.22
Leku asko ezagutu dituzu eta leku askotara joateko asmoa daukazu, zenbat eta urrunago hobeto. Ezetz ezagutu Euskal Herriko bazter guztiak? Kanpokoak harritzen gaitu, baina ezagutzen al dugu gurea?

ZIRIPOT
11.23 - 12.20
Osasuna zaindu beharra dugula gogoan duzu. Baina guztiz kontrakoa ere kaltegarria da buruarentzat. Osasuna zaindu bai, baina obsesio bihurtu? Elikadura zaindu behar duzu, noizbehinka gustuko duzuna tartekatuz.

SUGAAR
12.20 - 01.19
Gustuko duzun pertsonari ez diozu sentimenduak erakusten. Zuen artekoa oraindik argitu barik jarraitzen du. Bere sentimenduak zureekin bat ez datozela uste duzunez ez duzu aurrerapausorik ematen. Ez al da aspergarria?

_irakurlearen txokoa

_agenda

09.24 OSTEGUNA

18:30 AMURRIO
PAISAIAREN EKINTZA PLANA
Jardunaldi parte-hartzailea
Udaletxea

19:00 URDUÑA
HITZALDIA
Jakoba Errekondo: Bizi baratzea
Alondegia

19:30 URDUÑA
ZIRKO SUITZARRA
Emanaldia
Agua Saladako aparkalekua

20:00 LAUDIO
ELKARRETARATZEA
Euskal preso eta iheslariak etxera
Lamuza Plaza

09.25 OSTIRALA

17:30 LAUDIO
EUSKAL JAIA
Umeentzako jokoak
Herriko Plaza

18:00 LAUDIO
PHOTOCALL
Laudioko erosleek euskaraz egin dezaten
Elizpea

19:30 URDUÑA
ZIRKO SUITZARRA
Emanaldia
Agua Saladako aparkalekua

19:30 OROZKO
GORBEIAKO JARDUNALDIAK
Gaztaina saltzaileen matxinada 1778an
Museoa

20:00 LAUDIO
ELKARRETARATZEA
Euskal presoen alde
Lamuza Plaza

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Benito Lertxundiren kontzertua
Kiroldegia (22€)

BERAZAKO SAN MIGEL JAIAK

09.25 OSTIRALA
OROZKO

17:00 Txupinazoa.

17:30 Truca Rec: birziklatu eta jolastu.

18:30 Irrien lagunak "Marikalanbre eta Martinber" eta gero txokolatea

21:00 Kontzertua: Astearte folk taldearen eskutik

09.26 LARUNBATA

10:00 LAUDIO
EUSKAL JAIA
Herriko Plaza

11:00 AMURRIO
KANPAI KONTZERTUA
Emanaldia, kalejira, hitzaldia
Eliza

12:00 BEOTEGI
JAIAK
Bola jaurtiketa
Bolatokia

18:00 URDUÑA
ZIRKO SUITZARRA
Emanaldia
Agua Saladako aparkalekua

21:00 MENAGARAI
JAIAK
Txorizo eta txokolatea
Erdigunea

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
La Leñera
Drumgorri

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Aiaraldeko Sound
Gaztetxea

LEKAMAÑAKO JAIAK

09.26 LARUNBATA
LEKAMAÑA

12:00 Txupinazoa

16:30 Puzgarriak eta umeentzako jokoak

17:00 Txokolatea

20:30 Odolosteak

20:30 Berbena

09.27 IGANDEA

10:00 AMURRIO
ARTZAIN EGUNA
Jaiaren XXII. edizioa
Juan Urrutia plaza

11:30 URDUÑA
KROSA
Urduña Hiria lasterketa
Foru Plaza

12:00 LEKAMAÑA
JAIAK
Suziriak, meza eta tortilla lehiaketa
Erdigunea

13:00 MENAGARAI
JAIAK
Meza eta askaria
Eliza

13:30 OROZKO
SAN MIGEL JAIAK
Paella txapelketa, kalejira, euskal dantzak
Beraza auzoa

17:00 ARESPALDITZA
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
Puski eta Txurruski
Udaletxea

09.28 ASTELEHENA

12:00 OROZKO
SAN MIGEL JAIAK
Meza eta zozketa
Beraza auzoa

09.29 ASTEARTEA

12:00 BEOTEGI
JAIAK
Meza, luntxa eta tartaren zozketa
Erdigunea

13:00 OPELLORA
JAIAK
Meza, luntxa, trikitikariak, puzgarriak
Erdigunea

17:30 ARTZINIEGA
TAILERRA
Kartoizko antzerki txikia II
Herria

10.01 OSTEGUNA

10:00 LAUDIO
IKASTAROA
Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak zaintzeko saioa
Erabilera anitzeko gela

10.02 OSTIRALA

20:00 OROZKO
IKASTAROA
Dantza karibearrak
Kultur Etxea

10.03 LARUNBATA

10:30 LAUDIO
YOGA
Elkartasun yoga saioak
Satya Yoga eskola

18:30 LANTENO
ARABA KANTA
Vicenta Garcia abesbatzaren kontzertua
Arte Eskola

ZINEMA

09.27 igandea

"ESCISIÓN" AMURRIO ANTZOKIA 19:00etan



10.03 LARUNBATA

"INSIDE OUT" LAUDIOKO LHUIn 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

10.04 IGANDEA

"ATRAPA LA BANDERA" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,60 €)

"ESCISIÓN" LAUDIOKO LHUI 19:00etan

"ANACLETO AGENTE SECRETO" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

10.05 IGANDEA

"ANACLETO AGENTE SECRETO" AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

_ezin galdu

BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTUA: Orioko musikaria bigarren aldiz etorriko da Laudiora kontzertua eskaintzera eta hitzordua kiroldegian izango da bihar. Sarrerak 20 euro balio du aurrez erosiz gero. Horretarako Zuhaitza liburudendara jo dezakete interesdunek.

MIKEL DEUNA URDUÑAN: Larunbatean izen bereko kalean Mikel Deuna ospatuko dute eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Txupinaren ostean argazki herrikoia egingo dute eta gero musika eta gastronomia nagusi izango dira, tanga eta kulero lasterkertarekin bukatzeko.

Jimmy jazz gasteiz

IRA 25 // LOS GANDULES
21:30 (10 + gastuak / 12 €)

URR 1 // U2 live experience by ACHTUNG BABIES
20:30 (15 + gastuak / 18 €)

URR 2 // Y & T
21:00 (26 + gastuak)

URR 9 // NACH
21:00 (13 + gastuak)

URR 10 // THE QUIREBOYS
21:30 (18 + gastuak / 22 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

BASERRIA SALGAI OKONDON
Prezioa: Kontsultatzeke
300 m², 5 gela, 2 bainugela, sukaldea amerikana, egongela jantokiarekin, 3 solairu, 22.500 m²-ko lursaila, eraberrituta.
Erref.: 167. 505

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: kontsultazteke
90 m², 3 logela, 2 bainugela, egongela jantokiarekia, sukalde handia balkoiarekin, trastelekua, garajea, igogailua, eguzkitsua.
Erref.: 167. 645

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 137.000 €
78 m², 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela nalkoiarekin, despentsa, eraberrituta, altzariz hornituta.
Erref.: 167.643

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 138.000 €
60 m², 2 logela, bainugela, sukaldea amerikana, egongela jantokiarekin, jantzikela, egoera oso ona, eguzkitsua.
Erref.:167.638

PISUA SALGAI LAUDIO
Prezioa: Kontsultatzeke
112 m²-ko duplexa, 3 gela, 2 bainugela, sukaldea eta 28 m²-ko egongela balkoiarekin, terraza, trastelekua, garajea, guztiz hornituta.
Erref.: 167.648

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: Kontsultatzeke
63 m², 2 gela (printzipala bainugelarekin), 2 bainugela, sukaldea handia, egongela jantokiarekin, igogailua, trastelekua, garajea, egoera oso ona.
Erref.: 167.638

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50
info@etxaurre.com

_kontra

aiaraldea.eus

Txed

Alvaro Molero De Liches

“Ordu asko pasa ditut ardi artean eserita otsoari zer egin eta zer ez irakasten”

ALVARO MOLERO DE LICHESek (1980, Amurrio) otsoa du Larrabe auzoan. Ardi artean otsoari zer egin eta zer ez irakasten ordu asko igaro eta gero, egun, auzotik paseatu eta umeekin jolasten du animaliak.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Txanogorritxuren ipuinetik zure etxe pareko zelaira ekarri duzu otsoa.

Bai, %97 du otsotik eta %3 txakurretik. %100 otsoa balitz, ezinezkoa litzake maneiatzea. Nirea arraza berri bat da, esperimentatzen hasi zirenetik 80 urte bakarrik pasa dira. Animalia hauek ezin ditu edonork izan, izaera gogorra dute.

Zein ezaugarri ditu?

“Lobo” izena du, originala, bai! Zero azpitik 30 gradutan zoriontsua da. Hawskyek baino hotz gehiago nahi izaten dute. Neguan elurrarekin errekan sartu eta igerian hasten zen. Udan, argaldu eta ahuldu egin zitzaidan, beroagatik bi aldiz mareatu ere bai. Horregatik, goizaldean edo goizeko lehen orduan atera behar nuen paseatzera. Oso maitekorra da. Lobo hankaz gora jarri eta musu asko ematekoa da, txikitatik ezagutzen nauelako.

Nolatan egin zenuten otsoarekiko hautua?

Alabak eskatuta. Niri betidanik gustatu izan zaizkit otsoak. Leongo haztegi batetik ekarri nuen, 1.500€ ordainduta. Hasieran haginka egiten zuen, ezin zitzaion jaten eman. Ordu asko pasa ditut ardi artean eserita otsoari zer egin eta zer ez irakasten.

Nor da arriskutsuagoa, animalia ala jabea?

Jabeak askoz arriskutsuagoak dira animaliak baino. Poliziarekin arazoak izan nituen otsoa nuelako. Nire oilategian bizi da eta bizilagunek lehen egunean deitu egin zuten zoro batek otso bat ekarri zuelako auzora. Jendea kezkatua zegoen, baina denborarekin demostratu egin dut ez dagoela arriskurik: paseatzera ateratzen dut, auzoko umeekin jolasten du, haurrek hesitik laztandu egiten dute...

Ez zara ehiztarien beldur?

Mendira goazenean aurreratu egiten bazait oso adi ibili behar dut, jendeak ikustean “otso bat” dagoelako oihu egiten duelako.

Nirea dela eta ez duela ezer egiten esaten diet, baina norbaitek mendian ikusi eta tiro egingo ez ote dionaren beldurra dut. Txaleko islatzaile bat jartzea pentsatzen ari naiz.

Egia da ardi edo abereak izutu egiten direla hura ikustean?

Bai, oso urrunetik detektatzen dute. Larrabetik San Rokera paseatzen noanean hara iritsi baino lehenagotik hasten dira txakur guztiak zaunka. Lobo haiekin jolastera joaten da, oso animalia ona da.

Irati
Marañon
ITZULTZAILEA

_Leihotik

In vino veritas

Iraila. Gasteizko Udalak gizarte-etxeetan antolatzen dituen jardueretan tokia lortzeko zozketan zerbait egokitu ote zaigun ikusteko unea. Poza. Ardo dastaketaren oinarriak ikastaroa egin ahal izango dut. Euskaraz, gainera.

Baina ikastaroaren nondik norakoak irakurtzen hasi, eta hara non ikusten dudan txakolinak dastatuko ditugula, eta ez, esate baterako, Arabar Errioxako ardo beltzak. Ikastaro hori gaztelaniaz ere ematen dute, eta ezetz asmatu zer dastatuko duten? Txakolina, akaso? Ez, ba! Arabar Errioxako ardo beltzak. Euskaldunek, antza, gustukoago izan behar dute txakolina.

Txakolina ardo beltza baino lotuago omen dago euskal unibertsoari. Hori pentsatzen ote dute antolatzaileek? Horra, bada, kantauriar isurialdeko euskal herritarren hegemoniaren beste adibide bat. Izan ere, txakolinei buruzko ikastaroa emango duen aditu euskalduna gai da baita ere ardo beltzei buruz hitz egiteko; ziur nago horretaz.

Eta ez, ez zait txakolina gustatzen, eta horregatik ez dut izena emango ikastaroan.

Grafik
PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///
Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com
GUREKIN ERE EUSKARAZ!
JAIETARAKO PRODUKTU PERTSONALIZATUAK
KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU///
SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA, INPRESIO DIGITALA